

Nafarroako Esaera Zaharrak. Espartza-Zaraitzu, Ezkaroze, Otsagabia.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:
Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.
Bertsio informatiko honen egilea:
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Espartza-Zaraitzu, Ezkaroze, Otsagabia.

- 2359 *Aitak aunitz eta semeak geiago.*
Diruetan, indarretan, eta oitura txarretan ere bai maiz aski.
- 2360 *Aldariak tapatzen eta ez direnean agertzen, ez da denbra ona xiten.*
Garizumako boskarren igandean estaltzen dire aldareak, eta Pazko-igandean berriz agertzen; arte ortan ez dela eguraldi ona etortzen (xiten) esan nai ote du esaera orrek?
- 2361 *Amarretan ogatziala (oatzera), al badaike lenago; ez utzi geroko.*
Goiz etzan goiz jaikitzeke.
- 2362 *Anitz dakiena, ongi bizi da.*
Ez beti; jakintsun guziak ez dire ongi bizi. Obeki dago Oihenart-ena: "Aski dakik, bizitzen badakik" (547). Ongi bizi denak daki anitz.
- 2363 *Apirilian euri anitz.*
- 2364 *Ardiari ari, eta ilendia berroari (sasiari).*
- 2365 *Ardi txikia, beti axuri.*
Olatsu beste lekuetan.
- 2366 *Atxo zarra mukizu, zomat (zenbat) berri dakizu!*
- 2367 *Aurrekin etziten dena, zikinik xaikitzen da.*
Oihenart-ek: "Haurreki dena etziten, ezta bere mantharra xahurik jeikiten" (222).
- 2368 *Bat, bi, iru, lau: Irunberri-n otso lau.*
Jostaketako esaera. Irunberri, erderaz Lumbier.
- 2369 *Bertze lanik ez zuenak, bere etxea aixur.*
Beste lekuetan: bere etxea laiatu, etxeari su eman...
- 2370 *Bizi ongi, iltzeko obeki.*
- 2371 *Egin zak ongi, ta ez mirin (begiratu) nori.*
Erderaz ere ola.
- 2372 *Egun (gaur) egin daikena, ez utzi biarko.*

- 2373 *Egungo (gaurko) ogia, biarko gosea.*
Ematen duenak esku batez, artzen du bertzeakin.
- 2374 *Erran daztak (zaidak) norekin ebiltzen izen (aizen); erranen dabat nor izen.*
Beste izkuntzetan ere berdin. Oihenart-ek: "Erradak noreki biz'izan; nik hiri, gero, nolako izan" (149). "Erakuts itzatak eure lagunak, nik gero hiri eure atunak (oiturak)" (141).
- 2375 *Espartzako erria, tellak gorri gorria; bizi denak ikusi(r)en du buluz- gorri gorria.*
Buluzgorri = Billutsik, larrugorrian. Espartza = Saraitzuko erria.
- 2376 *Gaizki ebil dena, gaizki baratzen da.*
Gaizki gelditzen.
- 2377 *Garizomara goiz edo berant, beti erdi negu.*
- 2378 *Garizomara goiz balitz, edo berant baliz, martxuan ez balitz (Aezkoan).*
- 2379 *Gaur gorri, biar iguzki; goiz gorri, arrats euri.*
- 2380 *Gausko lana, egunsko alkea (alkea, ahalkea).*
Gauetzko lana, egunezko lotsa.
- 2381 *Goiz gorria, arr(a)tseko euria.*
Oihenart-ek: "Goiz orzadar, arrats iturri".
- 2382 *Gori ez duk auntzaren mina.*
Orrek badik mamia. Gori = hori, ori.
- 2383 *Izotzila, izotzila! urdandegian daukit urde ila.*
Izotzila = ilbeltza.
- 2384 *Kanpoko barragarri, etxeko gerlagarri.*
- 2385 *Lau larrin (larrain), bortz aize.*
Batean batetik, bestean bestetik jotzen aizeak.
- 2386 *Lepo llabur, edantzale ona.*
- 2387 *Martxoan lañoa norartio, aprilian elurra karartio.*
Noraño, arañño.
- 2388 *Nai ba 'uk eman zaen (zaikan), eser zak eskua, eta eman zak ik ere.*
Eser zak = ezar zak, luza zak, para zak eskua.

- 2389 *Nai duenari xakin anitz, erran guti eta gaizki.*
Okerreko aldera esan.
- 2390 *Naisiaren (nausiaren) begiak gizontzen zamariak.*
Erderaz berdintsu.
- 2391 *Nola xin, kala fin.*
"Nola etorri ala joan". Kala = hala, ala.
- 2392 *Nork? -Nik!*
Bere burua aundi egiten duenaz.
- 2393 *Obe da txori bat eskuan, ezik egun (ehun) aizean.*
Erderaz bezela.
- 2394 *Ogi egungo, gose biarko.*
"Pan para hoy, hambre para mañana".
- 2395 *Ongi xin (etorri)! -Ongi erden!*
Erderaz bezela: Bien venido. Bien hallado. Erden = eriden, ediren, idiren, idoro = arkitu (hallar).
- 2396 *San Andres: maia paratu ta ogirik ez.*
- 2397 *San Anton: arraultzeak montioka.*
Erderaz: San Antón, huevos a montón.
- 2398 *San Bartolome: kakoa (edo zartagia) zar ta opila me.*
Bartolome, opila me.
- 2399 *San Martin zerekin, San Roman karekin (arekin), ta Santa Katalina berarekin.*
Irrur Santu oiek asteko egun berean dire: Azaroan, San Martin 11-n, San Roman 18-an, Santa Katalina 25-ean.
- 2400 *San Matia: erein tuk axaxiak? ik bilduin (bilduko) tuk aza andiak.*
Axaxiak = aza-aziak. San Matia, orain arte otsaillaren 24-an.
- 2401 *Txakurrak anitz yausi, guti ozkiten.*
"Zakur saunkalaria ez da ozkaria".
- 2402 *Xardoki-merke.*
Itzontzia, berritsua. Xardoki (xarduki, yarduki) = itz egin, mintzatu.
- 2403 *Xokalarien alosak (edo xakolak), ez du lotzeko lanik.*

Erderaz: la bolsa del jugador no necesita atador.

- 2404** *Xoku luzia, azkeneko gaizto da.*
Joku luzeak azken onik ez.
- 2405** *Zu zamari, ni euli: nik ipurdian ozka, zuk laster iten (egiten).*
- 2406** *Pipitaki papataki, nik badakit gauza bat:*
aurian (eurian), landan, gazta bat. Zer ote da?
Asmakizuna. Illargia. Asmakizuna an pipitaki-papataki deitzen dute, beti
itz oiekin asten delako.
- 2407** *Pipitaki papataki, nik badakit gauza bat:*
Mendian sortu ta mendian azi: erriala xautxi (errira jetxi) ta erriko
nausi. Zer ote da?
Asmakizuna. Alkate-makilla edo zigorra.
Asmakizuna an pipitaki-papataki deitzen dute, beti itz oiekin asten
delako.
- 2408** *Urte berri berri, zer dekarrazu berri?*
Uraren gainean osasuna ta bakia.
Kantua. Urte-berritakoa.
- 2409** *Elizara, mezara. Berantzen denak gal dezala (que se fastidie!).*
Kantua. Ostegun santuan mezarako deia.